

# Informazioaren Gizartea eta Familiak

Emitzen analisia

## La Sociedad de la Información y las Familias

Análisis de resultados

## **Informazioaren Gizartea eta Familiak**

---

La Sociedad de la Información y las Familias

# ÍNDICE

# AURKIBIDEA

Pág/Or.

## LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN Y LAS FAMILIAS

1. Introducción	3
2. La Sociedad de la Información y las Familias	4
3. La Sociedad de la Información y las Personas de 15 y más años	10
3.1. Acceso a la Sociedad de la Información en el centro de estudio	13
3.2. Acceso a la Sociedad de la Información en el lugar de trabajo	14
4. Los usuarios de Internet: Evolución y características	15
4.1. El acceso a Internet	15
4.2. Evolución del número de usuarios y sus características	18
4.2.1. Frecuencia de acceso	22
4.2.2. El fin de la conexión, días de mayor acceso y tiempo de conexión	24
4.3. Uso de Internet	26
4.3.1. Tipos de Webs y servicios utilizados	26
4.3.2. Comercio electrónico	29
4.3.3. Idioma utilizado	31
4.3.4. Portales y Webs utilizados	32
5. Los menores y la Sociedad de la Información	33
6. Clasificación de los jóvenes según el uso del ordenador y el acceso a los equipamientos TIC	37
6.1. Planteamiento y objetivos del análisis	37
6.2. Resultados del análisis factorial de correspondencias	38
6.3. Descripción de los tipos de jóvenes en relación a las TIC	41
7. Notas metodológicas.	46
7.1. Ficha metodológica	46
7.2. Definiciones	49

## INFORMAZIOAREN GIZARTEA ETA FAMILIAK

1. Sarrera
2. Informazioaren gizartea eta familiak
3. Informazioaren gizartea eta 15 urte eta gehiagoko pertsonak
3.1. Informazioaren gizarterako sarbidea ikastokian
3.2. Informazioaren gizarterako sarbidea lantokian
4. Internet-erabiltzaileak: bilakaera eta ezaugarriak
4.1. Interneteko sarbidea
4.2. Erabiltzaile kopuruaren bilakaera eta haien ezaugarriak
4.2.1. Sarbidearen maiztasuna
4.2.2. Konexioaren xede nagusia, sarbide gehieneko egunak eta konektaturik ematen den denbora
4.3. Interneten erabilera
4.3.1. Erabiltzen diren web gune eta zerbitzu motak
4.3.2. Merkataritza elektronikoa
4.3.3. Erabilitako hizkuntza
4.3.4. Atari eta web gune erabilienak
5. Adingabeak eta Informazioaren gizartea
6. Gazteen sailkapena, ordenagailuaren erabileraren eta IKT ekipamenduetarako sarbidearen arabera
6.1. Azalpena eta azterketaren helburuak
6.2. Korrespondentzien faktore-analisiaren emaitzak
6.3. IKTen gaineko gazte moten deskribapena
7. Metodologia-oharrak.
7.1. Metodologia-fitza
7.2. Definizioak

## 1. Introducción

El presente documento constituye la quinta publicación anual de Eustat sobre la Sociedad de la Información. Aunque, en estos momentos, hay mayor cantidad de información accesible sobre Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC), desgraciadamente, no significa que se haya mejorado en comparabilidad y precisión, debido a la heterogeneidad de metodologías (fuentes y definiciones), e incluso a la de las formas de presentar los resultados. Aun así, se tratará, desde el punto de vista espacial y temporal, de realizar las comparaciones posibles en los temas objeto de estudio.

Los objetivos del presente informe pueden expresarse del siguiente modo:

- Ofrecer un análisis pormenorizado de las familias y las personas según su relación con la Sociedad de la Información, con un grado de detalle superior al permitido por la difusión coyuntural de los datos trimestrales.
- Ofrecer una información obtenida de la Encuesta sobre la Sociedad de la Información a Familias (ESIF) y no difundida anteriormente.
- Comparar los resultados de la ESIF con los datos ofrecidos por otras fuentes sobre el mismo tema.
- Estudiar el comportamiento de los distintos grupos sociales frente a la Sociedad de la Información, sus cambios y evoluciones.
- Completar la visión de la Sociedad de la Información ofrecida por el análisis de la "Economía Digital" a través de la Encuesta sobre la Sociedad de la Información a Empresas (ESIE).

La presentación de los resultados se hace de forma genérica, elaborando la media anual de 2004 en base a los datos de los trimestres II y IV del año. Este formato permite mostrar las características fundamentales del período y observar la evolución de las mismas, comparando medias anuales en series temporales, además de contar, con la total disponibilidad de los datos trimestrales.

El informe de la Sociedad de la Información y las Familias consta de cuatro apartados fundamentales:

El primero presenta el análisis de datos basado directamente en las unidades muestrales de la encuesta, que son las familias –localizadas en viviendas– y las personas que viven en familia. Este capítulo se divide, según la unidad de análisis utilizada, en:

1. Familias y equipamientos TIC del hogar.

## 1. Sarrera

Agiri hau Eustatek Informazio Gizarteari buruz atera duen urteroko bosgarren argitalpena da. Orain Informazio eta Komunikazio Teknologiei (IKT) buruzko informazio gehiago dago eskura, baina zoritxarrez horrek ez du esan nahi alderatzeko gaitasuna eta zehaztasuna hobetu direnik, oso heterogeneoak baitira metodologia (iturriak eta definizioak) eta datuak aurkezteko era. Dena dela, lekuei eta denborari dagokionez, aztergaien inguruko alderaketak egingo dira, ahal denean.

Honako hauek dira txosten honen helburuak:

- Familien eta pertsonen azterketa zehatza eskaini Informazioaren Gizartearekin duten erlazioaren arabera, hiruhileko datuen koiunturako hedapenak ahalbidetzen duen baino zehaztasun maila handiagoarekin.
- Familiei egindako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestan (IGIF) lortutako informazioa eskaini, aurrez hedatu ez dena.
- IGIFen emaitzak alderatu gai horri buruz beste iturri batzuek eskainitakoekin.
- Gizarte-taldeen Informazioaren Gizartearekin, haren aldakekin eta bilakaerarekin duten jarrera aztertu.
- Enpresei egindako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestako datuen bidez Ekonomia Digitala aztertuta, Informazio Gizarteari buruz lortutako ikuspegia osatu.

Modu generikoan aurkeztu dira emaitzak, eta 2004ko urteko batez bestekoa urte bereko II. eta IV. hiruhilekoetako datuak oinarritzat hartuta egin da. Formatu horri esker, aldiaren ezaugarri nagusiak erakusten dira, bai eta ezaugarri horiek duten bilakaera ere, urteko batez bestekoak denbora-serieetan alderatuta. Gainera, hiruhileko datuak erabat eskuragarri daude.

Informazioaren Gizartea eta Familiak txostenak lau atal nagusi ditu:

Lehenengo atalak inkestako lagin-unitateen datuetan zuzenean oinarritutako azterketa dakar; familiak –etxebizitzetan daudenak– eta familian bizi diren pertsonak. Kapitulu hau erabili den azterketa-unitatearen arabera banatuta dago:

1. Familiak eta IKT hornikuntzak etxeetan.

2. Población de 15 y más años según equipamientos TIC (en tres lugares fundamentales: hogar, centro de estudios y centro de trabajo, aunque se recoge también cualquier otro sitio de acceso efectivo a Internet).
3. Población usuaria de Internet, características y evolución.
4. Los menores (población de 6 a 14 años) y la Sociedad de la Información. Este último punto presenta un estudio de la población de entre 6 y 14 años, tanto en su utilización de los equipamientos TIC como en comparación con los demás grupos de edad. La relevancia de este sector de la población radica en que en él está el presente y, sobre todo, el futuro de la Sociedad de la Información y la Comunicación, tanto a nivel de usuario como de investigación del desarrollo de las actuales y futuras TIC.

En el segundo se ofrece una clasificación de los jóvenes (población comprendida entre 6 y 3 años), según el uso de ordenador y el acceso a los equipamientos TIC.

En el capítulo metodológico, que configura el tercer apartado, se detalla la ficha metodológica de la operación, los errores muestrales de las variables fundamentales de la encuesta, así como las definiciones y el cuestionario.

Finalmente, el cuarto apartado presenta el apéndice estadístico, en el que se ofrecen las tablas con la media anual.

## 2. La Sociedad de la Información y las Familias

Las familias vascas, manteniendo la tónica de años anteriores, continúan aumentando su incorporación a las nuevas Tecnologías de la Información y de las Comunicaciones. En el año 2004, únicamente se registra un ligero descenso en el caso del fax. En el resto de los equipamientos se produce un aumento, destacando el teléfono móvil, ordenador personal, Internet, correo electrónico y TV por cable.

Las estrategias de integración de servicios en el mercado de las comunicaciones afectan directamente a la penetración de las TIC en los hogares. En estos últimos años, los proveedores lanzan al mercado paquetes que incluyen telefonía, televisión por cable e Internet como un producto único y con el objetivo de prestar a las familias todos los servicios que se pueden demandar. Por lo tanto, a la hora de hacer un análisis de la penetración de las nuevas tecnologías, se debe sopesar esta nueva perspectiva integradora de servicios y sus consecuencias.

La expansión de la gran mayoría de los elementos TIC en los hogares de la C.A de Euskadi se refleja en incrementos de sus medias anuales. Destacan, como equipamientos más usuales, el teléfono móvil (78,5%), que continúa siendo en el año 2004 el primer elemento TIC de las familias, la televisión con teletexto (72,2%) y el vídeo (71,5%). Hay que apuntar que la popularización en los hogares del DVD estanca un equipamiento clásico como es el vídeo, que presenta un ligero descenso.

2. 15 urte edo gehiagoko biztanleak IKT hornikuntzaren arabera (hiru toki nagusitan: etxean, ikastokian eta lantokian. Dena dela, Internetera konektatzeko erabiltzen den beste edozein toki ere jaso dugu).
3. Internet erabiltzen duen biztanleria, ezaugarriak eta bilakaera.
4. Adingabeak (6 eta 14 urte bitarteko biztanleak) eta informazioaren gizartea. Azken puntu honetan 6 eta 14 urte bitarteko biztanleak aztertu dira, IKT hornikuntzak erabiltzeari dagokionez eta beste adin-taldeen alderatu dira. Biztanle-sektore hori garrantzitsua da, hor baitago informazioaren eta komunikazioaren gizartearen oraina eta, batez ere, etorkizuna, erabiltzaileak diren aldetik zein egungo eta etorkizuneko IKTen garapena ikertze aldera.

Bigarrenean, gazteen (6-30 urte bitarteko biztanleen) sailkapena egiten da, ordenagailuaren erabileraren eta IKT ekipamenduak edukitzearen arabera

Hirugarren atala kapitulu metodologikoak osatzen du eta eragiketaren fitxa metodologikoa ageri da, baita inkestako oinarriko aldagaien lagin-erroreak, definizioak eta galde-sorta ere.

Amaitzeko, estatistika-eranskina dago laugarren atalean, urteko batez besteko taulekin.

## 2. Informazioaren gizartea eta familiak

Aurreko urteetako joerari jarraikiz, EAEko familiek informazio eta komunikazio teknologia berrietako elementuak gero eta gehiago erabiltzen dituzte. 2004an faxa bakarrik erabili da apur bat gutxiago. Beste ekipamendu guztiak gehiago erabili dituzte, eta sakelako telefonoa, ordenagailu pertsonala, Internet, posta elektronikoa eta kable bidezko telebista nabarmentzen dira.

Komunikazioaren merkatuan zerbitzuak integratzeko estrategiek IKT etxeetan sartzearekin lotura zuzena dute. Azken urteotan, telefonoa, kable bidezko telebista eta Internet produktu bakartzat merkaturatu dituzte hornitzaileek. Produktu horren helburua da familiek eskatu ahal dituzten zerbitzu guztiak eskaintzea. Beraz, teknologia berriak zenbateraino sartu diren aztertzean, kontuan hartu beharrekoak dira zerbitzuak integratzearen ikuspegi hori nahiz horren ondorioak.

Urteko batez bestekoetan islatzen da EAEko etxeetan IKT elementuek izan duten zabalkundea. Hornikuntzarik ohikoenak dira sakelako telefonoa (%78,5), 2004an familietan lehenbiziko IKT elementua izaten jarraitzen duena, teletextua duen telebista (%72,2) eta bideoa (%71,5). Nabarmendu behar da etxeetan DVD ohiko bilakatu denez, beste hornikuntza klasiko bat, bideoa, hain zuzen, apur bat jaitsi dela.

Los datos de la última información recogida avalan el estancamiento de determinados elementos de las nuevas tecnologías, que pasan a ser considerados como tradicionales y, en cualquier caso, obsoletos. Es evidente que las prestaciones, la calidad del producto y su bajada de precios han hecho que elementos como el DVD, el ordenador portátil y/o de sobremesa y la telefonía móvil –con sus correspondientes conexiones a la red– hayan relegado a un segundo plano a dispositivos como el vídeo o la televisión de pago.

La calidad de una película de DVD es incuestionable, frente a la imagen y sonidos ofrecidos por el vídeo tradicional. Sucede lo mismo que ocurrió cuando el CD-ROM irrumpió en el mercado, destronando con la calidad de su sonido a elementos como la cinta grabadora o el disco de vinilo. La imagen y el sonido digitales sustituyen a los analógicos, como sucedió con la cámara de vídeo digital y las incómodas cintas del vídeo tradicional.

Son éstas las explicaciones de que en los hogares vascos ciertas TIC hayan alcanzado techo, frente a la popularización de otros elementos de mayor calidad, e incluso, con un manejo y utilización más accesibles.


Bildu den azken informazioko datuek egiaztatu egiten dute teknologia berrietako zenbait elementu ez atzera ez aurrera gelditu direla, orain tradizionalizat, eta nolana ere, zaharkituztat jotzen baitira. Argi dago produktu batzuen prestazioek, kalitateak eta salneurrien beherakadak eragina izan dutela bideoa edo ordaindutako telebista bazterturik gelda daitezten, DVD aparatuen, ordenagailu eramangarrien edota mahaiko ordenagailuaren eta sakelako telefonoaren (eta dagozkien Interneteko konezioak) aurrean, besteak beste.

Ohiko bideoaren irudiarekin eta soinuarekin konparatuta, DVD filmen kalitatea ezin da eztabaidatu. Antzekoa gertatu zen CD-ROMa merkaturatu zenean, bere soinu-kalitatearekin grabatzeko zintak eta binilozko diskoak atzean utzi baitzituen. Irudi eta soinu digitalen analogikoak ordeztu dituzte, bideo digitalen bideo-zinta tradizionalak ordeztu zituen bezala.

Horregatik, EAEko etxeetan IKT batzuek goia jo dute eta kalitate handiagoko –eta erabilera errazagoko– beste batzuk hedatu dira.

Evolución de las familias por equipamientos TIC del hogar.  
C.A. de Euskadi. Media anual. (%)

Familien bilakaera, etxeko IKT hornikuntzen arabera.  
Euskal AE. Urteko batez bestekoa. (%)



(\* ) 2003 urtetik aurrera jasotzen da informazioa puntu honetaz. / A partir del año 2003 se recoge información sobre este punto.  
Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

## Elementos asociados al ordenador personal

La tasa de penetración del ordenador personal en las familias vascas sigue creciendo, pasando del 44,1% en el año 2003, al 48,0% en el año 2004.

Junto al ascenso del ordenador, y como no podía ser de otra manera, sube también la tendencia a contar con conexión a Internet, pasando del 29,2% del año 2003, al 33,9% del 2004 el porcentaje de hogares vascos que cuentan con esta vía de acceso a la red global, suponiendo este porcentaje un total de 257.400 hogares. Esta subida de 4,7 puntos porcentuales sitúa a este equipamiento informático básico entre los que cuentan con mayores incrementos.

En el año 2003, se comenzó a preguntar por el tipo de línea de conexión a Internet desde la vivienda que tenían los encuestados. Según la media anual, algo más de 6 de cada 10 familias con Internet tienen línea de acceso convencional. Otras formas de conexión son utilizadas por menos usuarios. Así, el 22,5% de las familias tienen línea ADSL, el 15,9% tienen red de cable y el 0,3% tienen línea RDSI. Bizkaia es el territorio histórico con mayor porcentaje de familias con banda ancha, un 40,9%. La banda ancha también llega a uno de cada tres hogares con Internet en Gipuzkoa –37,5%– y en Álava –30,9%–.

Familias con Internet, según tipo de línea de conexión y territorio histórico. C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%) (\*)


## Ordenagailu pertsonalari lotutako elementuak

Familietan ordenagailu pertsonalak nola sartu diren erakusten duen tasa hazi egin da berriz ere; 2003an %44,1 zen tasa hori eta 2004an %48,0.

Ordenagailuaren igoerarekin batera, ezinbestez, Interneteko konexioa izateko joera ere areagotu egin da; hala, 2003an euskal etxean %29,2an zegoen sare globalerako sarbide hori, eta 2004an %33,9an. Hau da, 257.400 etxetan. Oinarrizko hornikuntza informatiko horren 4,7 ehuneko-puntuako igoera hori handienetakoa izan da.

Etxean zuten Interneteko konexio motari buruz hasi ziren galdetzen inkestak 2003. urtean. Urteko batez bestekoaren arabera, Internet duten 10 familiatik 6k baino apur bat gehiagok sarbide-línea arrunta dute. Erabiltzaile gutxiagok du bestelako konexio-mota bat. Horrela, familien %22,5ek ADSL línea dute, %15,9k kable-sarea eta %0,3k ISDN línea. Bizkaiak du banda zabala duten familien ehunekorik handiena (%40,9). Banda zabala Gipuzkoan hiru etxetik batean dago –%37,5– eta Araban –%30,9–.

Internet duten familiak konexio-motaren arabera, lurraldeka. Euskal AE. 2004. Urteko batez bestekoa. (%) (\*)



(\*) Erantzun anizkoitzeko galdera. / Pregunta de respuesta múltiple.

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

Comparando con otras comunidades y teniendo en cuenta los datos del INE y del Eustat del 2º trimestre de 2004, podemos decir que la C.A. de Euskadi se sitúa por encima de la media de España, en cuanto a la línea telefónica convencional, 13,4 puntos porcentuales y que, por el contrario, en la banda ancha se distancia 11,5 puntos porcentuales de la media de España.

Beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta eta INEren datuak nahiz Eustaten 2004ko 2. hiruhileko datuak kontuan izanik, EAE, telefono-línea arruntari dagokionez, Espainiako batez bestekoaren gainetik dago (13,4 ehuneko puntura), aldiz, banda zabalarri dagokionez, Espainiako batez bestekotik 11,5 ehuneko puntura dago.

**FAMILIAK ETXEAN DUTEN INTERNETEKO  
KONEXIOAREN MOTAREN ARABERA,  
AUTONOMIA-ERKIDEGOKA.****2004KO 2. HIRUHILEKOA (%) (\*)**

FAMILIAS SEGÚN TIPO DE LÍNEA DE CONEXIÓN A INTERNET EN LAS VIVIENDAS, POR COMUNIDAD AUTÓNOMA. 2º TRIMESTRE DE 2004. (%) (\*)

	<b>Telefono-linea arrunta</b> Línea telefónica convencional	<b>Banda zabala (ADSL, ISDN, Kable-sarea)</b> Banda ancha (ADSL, RDSI, Red cable)	<b>ADSL linea</b> Línea ADSL	<b>ISDN linea</b> Línea RDSI	<b>Kable-sarea</b> Red de cable	<b>Bestelako konexio-bideak</b> Otras formas de conexión
Asturias	40,4	55,6	22,2	0,0	34,4	5,4
Balearrak / Baleares	40,8	56,7	41,4	1,9	13,9	4,0
Kanariak / Canarias	47,8	50,0	44,8	1,9	5,9	2,7
Madril / Madrid	52,7	48,0	41,8	1,9	5,3	4,9
Murtzia / Murcia	43,8	44,8	27,3	1,9	15,6	11,4
Valentzia / Comunidad Valenciana	50,5	47,8	35,2	1,4	11,6	2,7
Andaluzia / Andalucía	51,7	45,1	32,5	0,9	12,5	3,6
Galizia / Galicia	52,7	45,2	22,1	4,0	21,0	4,2
Espainia / España	52,9	44,7	34,3	1,3	9,8	3,5
Katalunia / Cataluña	53,3	44,5	39,1	0,5	5,0	1,7
Gaztela eta Leon / Castilla y León	56,7	36,3	22,0	2,2	12,7	2,0
Errioxa / La Rioja	56,4	34,6	26,1	0,8	8,3	4,2
Gaztela-Mantxa / Castilla-La Mancha	55,8	37,4	28,5	0,5	8,4	6,8
Kantabria / Cantabria	52,4	47,2	34,8	1,4	11,6	7,1
Aragoi / Aragón	56,6	43,2	27,8	0,7	14,7	1,9
Euskal AE / C.A. de Euskadi	<b>66,3</b>	<b>33,2</b>	<b>20,9</b>	<b>0,4</b>	<b>12,3</b>	<b>0,0</b>
Nafarroa / Navarra	63,7	28,7	21,4	1,7	6,2	3,7
Extremadura	64,9	32,6	32,0	0,0	0,6	2,9

(\*) **Erantzun anizkoitzeko galdera.** Pregunta de respuesta múltiple.

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat. TIC-H. INE.

**Elementos asociados al televisor**

De los elementos asociados al televisor, sólo el vídeo mantiene prácticamente estable su presencia en las familias vascas, pasando del 71,6% del 2003 al 71,5% del 2004.

Por su parte, el resto de elementos asociados al televisor aumentan su presencia en el período de estudio: la antena parabólica (del 12,9% al 13,9%), la televisión de pago (del 7% al 7,5%), el teletexto (del 71% al 72,2%) y la televisión por cable (del 9,2% al 14%).

La televisión por cable se encuentra en 106.200 hogares vascos, lo que supone un aumento sensible respecto al año anterior. La antena parabólica está presente en 105.400 hogares. Esta subida puede tener su explicación en las políticas de expansión de los operadores telefónicos y en la oferta de servicios integrados.

**Otros equipamientos del hogar**

Sin duda alguna, el equipamiento que se convierte en el de mayor presencia en los hogares vascos es el teléfono móvil. Pasa del 73,7% del año 2003, al 78,5% del 2004, alcanzando el primer puesto en el ranking de TICs en las familias vascas. Tres de cada cuatro familias en la C.A. de Euskadi dispone de teléfono móvil en su hogar.

**Telebistari lotutako elementuak**

Telebistari lotutako elementuetan bideoak bakarrik du presentzia egonkorra EAeko familietan: 2003an %71,6an zegoen eta 2004an %71,5ean.

Aldiz, telebistari lotutako beste elementu guztien presentziak gora egin du aztertutako aldian: antena parabolikoa (%12,9tik %13,9ra), ordaindutako telebista (%7tik %7,5era), teletestua (%71tik %72,2ra) eta kable bidezko telebista (%9,2tik %14ra).

Kable bidezko telebista EAeko 106.200 etxetan dago, gora egin du apur bat aurreko urtearen aldean. Antena parabolikoa 105.400 etxetan dago. Telefono-operadoreen hedakuntza-politika nahiz zerbitzu integratuen eskaintza izan daitezke igoera horren arrazoietakoz batzuk.

**Etxeko beste hornikuntza batzuk**

Zalantzarik gabe, sakelako telefonoa da EAeko etxeetan hedakuntzarik handiena duen hornikuntza. 2003an %73,7 izatetik 2004an %78,5 izatera igaro da eta EAeko familien artean IKTetako lehen postua du. EAeko lau familietatik hiruk sakelako telefonoa duten etxean.



### Evolución trimestral de los equipamientos TIC del hogar según el tipo de familia

La evolución trimestral de los 5 últimos años muestra un claro ascenso en algunos de los equipamientos TIC en los hogares. Así, si se tiene en cuenta el ordenador personal, Internet y el teléfono móvil, a lo largo de estos años, se produce un incremento en cada uno de ellos y en todos los trimestres, excepto en el segundo de 2003, que se produjo un ligero estancamiento, para luego recuperarse.


Evolución de las familias por los principales equipamientos TIC en el hogar, según trimestre. C.A. de Euskadi. (%)

### Etxeko IKT hornikuntzen hiruhileko bilakaera, familia-motaren arabera

Azken 5 urteetako hiruhilekokako bilakaerak erakusten du IKT hornikuntza batzuk hazi egin direla etxeetan. Ordenagailu pertsonala, Internet eta sakelako telefonoa kontuan hartzen baditugu urte horietan, denak hazi dira eta hiruhileko guztietan, 2003ko bigarren hiruhilekoan izan ezik, nolabait geldituta egon baitzen, nahiz eta gero suspertu.

### Familien bilakaera, etxeko IKT hornikuntza nagusien arabera, hiruhilekoka. Euskal AE. (%)

3.



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

La composición familiar diferencia el nivel y el tipo de equipamientos TIC. Las familias con hijos presentan niveles más altos de introducción de TICs en el hogar, mientras que las personas que viven solas son las peor equipadas.

Así, en la gráfica de la evolución de las familias por TIC del hogar según trimestre y tipo de familia, en el equipamiento de Internet (Gráfica 5), el porcentaje de familias con hijos que cuentan con Internet (48,4%) es tres veces mayor que el de las familias formadas por parejas solas (16,6%) y el de las personas que viven solas o el de familias sin núcleo familiar (14,2%). Lo mismo sucede con los datos referidos al equipamiento ordenador personal, en donde los hogares con hijos llegan al 68,5%, los hogares con parejas al 23,4% y los hogares de personas aisladas al 20,1%.


Familiaren osaerak bereiztu egiten du IKT hornikuntza maila eta mota. Seme-alabak dituzten familiek dute IKT gehien etxean, eta bakarrik bizi direnek gutxien.

Familien bilakaerari dagokion grafikoan (etxeko IKT hornikuntza hiruhilekoaren eta familia-motaren arabera), Interneteko hornikuntza dutenak (4. grafikoa) ia hiru aldiz gehiago dira seme-alabak dituzten familien artean (%48,4) bikote hutsak direnen artean baino (%16,6) eta bakarrik bizi direnen edo familigunerik gabeko familietan baino (%14,2). Gauza bera gertatzen da ordenagailu pertsonalaren hornikuntzari buruzko datuekin, seme-alabak dituzten familien artean %68,5ek dute, bikote hutsak osatzen duten familietan %23,4k eta bakarrik bizi direnen artean %20,1ek.

Evolución de las familias por equipamientos informáticos en el hogar por tipo de familia, según trimestre. Ordenador personal. C.A. de Euskadi. (%)

4.

Familien bilakaera, etxeko hornikuntza informatikoen arabera eta familia-motaren arabera, hiruhilekoka. Ordenagailu pertsonala. Euskal AE. (%)




Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

Evolución de las familias por equipamientos informáticos en el hogar por tipo de familia, según trimestre. Internet. C.A. de Euskadi. (%)

5.

Familien bilakaera, etxeko hornikuntza informatikoen arabera eta familia-motaren arabera, hiruhilekoka. Internet. Euskal AE. (%)



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

### 3. La Sociedad de la Información y las Personas de 15 y más años

No todos los equipamientos TIC de la población vasca crecen en el año 2004; entre los que sí crecen, no todos lo hacen de la misma manera. De ello se deduce que el disfrute de los equipos TICs no alcanza a todos los grupos sociales del mismo modo.

El teléfono móvil resulta ser el elemento tecnológico más extendido en la C.A. de Euskadi, llegando en el año 2004 al 86,4% de la población de 15 y más años, lo que representa un incremento de 2,7 puntos porcentuales con respecto a 2003.

En cuanto al equipamiento informático, una de cada dos personas de 15 y más años manifiesta tener ordenador personal en su casa –1.036.800–. Cabe destacar que el crecimiento de personas con acceso al ordenador personal en el hogar ha sido de 42.200 personas del año 2003 al 2004.

Evolución de la población de 15 y más años por equipamientos TIC en el hogar. C.A. de Euskadi. Media anual. (%)


### 3. Informazioaren gizartea eta 15 urte eta gehiagoko pertsonak

EAEko biztanleen IKT hornikuntza guztiek ez dute gora egin 2004an; gora egin dutenen artean, denek ez dute neurri berean egin gora. Hortik ondorioztatzen da IKT hornikuntzak izateko aukera ez dela bera gizarte-talde guztietan.

Sakelako telefonoa da EAEn elementu teknologikorik hedatuen, 2004an 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 86,4ra iritsi zen; hau da, 2003arekin alderatuz gero, 2,7 ehuneko-puntu hazi zen.

Hornikuntza informatikoari dagokionez, 15 urte edo gehiagoko bitik batek etxean ordenagailu pertsonala duela dio –1.036.800–. Esan beharra dago 2003tik 2004ra etxean ordenagailu pertsonala duen pertsona kopurua 42.200 hazi dela.

### 6. 15 urte edo gehiagoko biztanleen bilakaera, etxean dituzten IKT hornikuntzen arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoa. (%)



(\*) 2003 urtetik aurrera jasotzen da informazioa puntu honetaz. / A partir del año 2003 se recoge información sobre este punto.

Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

En el período de estudio se aprecia un fuerte ritmo de crecimiento, entre los años 2000 y 2001, de 7,4 puntos, que se frena entre 2001 y 2002 (el crecimiento no llega a los 3 puntos) para volver a crecer entre 2002 y 2003 con un ascenso en las tasas de penetración del ordenador personal de 5 puntos. Finalmente, entre los años 2003 y 2004 la diferencia es de 2,2 puntos.

Aztertu den aldian, hazkunde-eritmo bizia ikusten da 2000tik 2001era, 7,4 puntukoa. Hori moteldu egin zen 2001etik 2002ra (hazkundera ez zen 3 puntura iritsi), baina 2002tik 2003ra berriro ere hazi egin zen, eta ordenagailu-pertsonalaren sartze-tasa 5 puntu igo zen. Azkenik, 2003tik 2004ra 2,2 puntuko aldea egon da.

El 39,9% de la población en el año 2004 dice tener acceso a Internet, lo que significa un aumento respecto al año 2003 de 4,1 puntos porcentuales. En lo que se refiere al e-mail, el 35,7% de la población lo tiene en sus casas. El 78,3% de la población manifiesta tener vídeo en su hogar y un porcentaje algo menor –77,8%–, televisión con teletexto.

La antena parabólica, la TV por cable y la TV de pago son los equipamientos TIC con menor implantación en los hogares vascos; en el primer caso 15,7%, en el segundo 15,3% y en el tercero 8,7%. Destaca la subida de la TV por cable, en el periodo de estudio que convierte a este elemento TIC en el hogar en el que experimenta la mayor subida.

### Características de la población con acceso a Internet

Atendiendo al equipamiento informático en el hogar, los colectivos sociales que manifiestan más dinamismo en su incorporación a Internet son los más vinculados a alguna actividad académica y/o profesional. Por el contrario, las personas que viven aisladas, los ancianos, las mujeres, los inactivos y los que tienen menor nivel de instrucción son los que presentan un acceso más bajo.

Hay que resaltar que los colectivos que antes y, en mayor medida, disponen de equipamientos TIC en la vivienda son los que presentan un nivel de formación más alto y, por tanto, mayores recursos para adaptarse a los rápidos cambios de las nuevas tecnologías, sin olvidar que en esta dimensión se solapan, además, el nivel económico, la edad y el género. Los que más se conectan son las familias que tienen hijos y, por grupos de edad, los que tienen entre 15 y 24 años.

Seis de cada diez jóvenes estudiantes tienen acceso a Internet, lo que supone un importante crecimiento respecto al año anterior (6,5 puntos porcentuales). Se trata de un colectivo sin medios económicos propios, que vive en el hogar familiar y que dispone de los equipamientos adquiridos por sus progenitores u otros familiares.

Este colectivo está formado por jóvenes de ambos sexos, que han nacido en la era de la informática y que tiene menos problemas en adaptarse a las nuevas tecnologías y sus cambios.

Por el contrario, los inactivos y parados que poseen Internet en casa son el 25,3%; los mayores de 65 años son el 14,0%; de los que viven solos, el 16,1%; de los que poseen estudios primarios, el 21,4% y de los que viven en pareja, el 19,6%.

Las mujeres disponen de acceso a Internet en el hogar menos que los hombres –con una diferencia de 1,8 puntos porcentuales– pero esta distancia ha disminuido con respecto al año 2003, año en el que la diferencia se situaba en 3,8 puntos. No hay que olvidar el sensible mayor peso de las mujeres en el grupo de personas mayores y en el de inactivas, todas ellas menos vinculadas a la Sociedad de la Información.

En síntesis, mayores dificultades para acceder a Internet encuentran las personas mayores, las que no viven en familias con hijos, las que están solas o las de menor nivel de instrucción.

Biztanleen %39,9k esan dute 2004an Internetarako sarbidea dutela, eta hori 4,1 ehuneko-puntuko igoera da 2003arekin alderatuz gero. Posta elektronikoki dagokionez, biztanleen %35,7k dute etxean. Biztanleen %78,3k etxean bideoa dutela diote eta ehuneko txikixeagoak teletestudun telebista –%77,8–.

Antena parabolikoa, kable bidezko telebista eta ordaindutako telebista dira EAeko etxeetan gutxien sartu diren IKT elementuak; lehenengoaren kasuan %15,7, bigarrean %15,3 eta hirugarrenean %8,7. Kable bidezko telebistaren igoera nabarmentzen da, aztertu den aldian gehien igo den IKT elementua baita etxean.

### Interneteko sarbidea duen biztanleriaren ezaugarriak

Ettxeko informatika hornikuntzei dagokionez, Interneten sartzeko aukeren arloan dinamikoak diren gizarte-taldeek lotura dute irakaskuntzako edota laneko jardueraren batekin. Aldiz, gutxiago sartzeko dira bakarrik bizi direnak, adinekoak, emakumeak, ez-aktiboak eta ikasketa-maila txikiagoa dutenak.

Aipagarria da heziketa-maila handiena duten taldeek eskuratzeko dituzten lehenago eta neurri handiagoan IKT hornikuntzak etxean. Beraz, talde horretakoek baliabide gehiago dituzte teknologia berrien aldatetara moldatzeko; horrez gain, arlo horretan ekonomia-mailak, adinak eta sexuak ere eragina dute. Gehien konektatzen direnak seme-alabak dituzten familiak dira, eta, adin-taldearen arabera, 15-24 urte bitartekoak.

Ikasten ari diren hamar gaztetatik seik Internetarako sarbidea dute, eta hori hazkunde handia da aurreko urtearen aldean (6,5 ehuneko-puntu). Talde horretako kideak berezko baliabide ekonomikorik gabekoak dira, hots, familiaren etxean bizi dira eta gurasoek edo familiako beste kideren batek eskuratutako hornikuntzak dituzte.

Talde horretan bi sexuetako kideak daude, informatikaren aroan jaio dira eta arazo gutxiago dute teknologia berrietara eta haien aldatetara moldatzeko.

Aitzitik, etxean Internet duten ez-aktiboak eta langabeak %25,3 dira; 65 urte baino gehiagokoak %14,0; bakarrik bizi direnak %16,1; lehen mailako ikasketak dituztenak %21,4 eta bikotean bizi direnak %19,6.


Emakumezkoek gizonezkoek baino neurri txikiagoan dute Internet etxean –1,8 ehuneko-puntuko aldea dago– baina alde hori murriztu egin da 2003 urtearen aldean, orduan 3,8 puntukoa baitzen. Ezin dugu ahaztu emakumeek pisu handiagoa dutela adinekoen eta ez-aktiboaren taldeetan, eta horiek guztiak lotura txikiagoa dute informazioaren gizartearekin.

Laburbilduz, zailtasun handiagoak dituzte adinekoek, seme-alabak dituzten familietan bizi ez direnek, bakarrik dauden edo ikasketak-maila apalenetakoek.

Evolución de la población de 15 y más años con acceso a Internet en el hogar. C.A. de Euskadi. Media anual. (%)

7.

Etxean Interneteko sarbidea duen 15 urteko eta gehiagoko biztanleen bilakaera. Euskal AE. Urteko batez bestekoa. (%)



### 3.1. Acceso a la Sociedad de la Información en el centro de estudio

El 88,4% de los estudiantes tiene acceso a un ordenador personal en su centro de estudio. El ámbito académico parece ser el nexo de unión de las TIC con las nuevas generaciones, ya que, además, hay que tener en cuenta que el 84,3% de los estudiantes tiene acceso a Internet en su centro de estudio.


Población de 15 y más años estudiante por equipamientos TIC en el centro de estudio, según territorio histórico y sexo. C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%)

### 3.1. Informazioaren gizarterako sarbidea ikastokian

Ikasleen %88,4k ordenagailu pertsonala erabil dezakete ikastokian. Badirudi ikastokiak direla IKTen eta belaunaldi gazteen arteko lotura; izan ere, ikastokietan ikasleen %84,3k Interneten sartzeko aukera ere badutela kontuan hartu behar da.

15 urteko eta gehiagoko ikasle diren biztanleen bilakaera, ikastetxean dituzten IKT hornikuntzen, lurraldearen eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2004. Urteko batez bestekoa. (%)

8.



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

De los estudiantes varones, el 88,1% puede acceder a un ordenador personal en su centro de estudios y el 83,5% a Internet. El 88,6% de las mujeres estudiantes puede acceder a un ordenador en su centro de estudios y el 85,0% a Internet. Parece, por tanto, que en 2004 se supera la brecha de género existente en el acceso a Internet en el centro de estudios.

Por territorios, Gipuzkoa resulta ser el lugar donde se da un promedio más elevado en la incorporación de TICs en los centros educativos; es decir, que los estudiantes guipuzcoanos son los mejores equipados dentro de la C.A. de Euskadi: el 91,8% de dichos estudiantes pueden acceder a un ordenador en el centro de estudios; en Bizkaia el 87,1% y en Álava el 86,6%. En cuanto a la conexión a Internet, los datos son los siguientes: en Gipuzkoa el 88,5%, en Bizkaia el 82,6% y en Álava el 82,5%. Esta diferencia entre territorios históricos se viene manteniendo a lo largo de estos años.

Gizonezko ikasleen %88,1ek ordenagailu pertsonala erabiltzeko aukera dute ikastokian eta %83,5 Interneten sar daiteke. Emakumezko ikasleen %88,6k ordenagailu pertsonala erabiltzeko aukera dute ikastokian eta %85,0 Interneten sar daiteke. Beraz, 2004an ikastokian Interneten sartzeko zegoen genero arteko zuloa gainditu dela dirudi.

Lurraldez lurralde, Gipuzkoan dago batez besteko handiena ikastokietan IKTak sartzean; Gipuzkoako ikasleak dira, beraz, ongien hornitutakoak EAEn: ikasle horien %91,8k ordenagailua dute eskura ikastokian; Bizkaia %87,1ek eta Araban %86,6k. Interneteko konexioari dagokionez, hona hemen datuak: Gipuzkoa %88,5, Bizkaian %82,6 eta Araban %82,5. Lurralde historikoen arteko alde horiek antzekoak izan dira azken urteetan.

### 3.2. Acceso a la Sociedad de la Información en el lugar de trabajo

Entre las personas ocupadas, el 47,0% puede acceder a un ordenador personal en el lugar de trabajo, el 35,5% tiene acceso a Internet y el 14,9% dispone de teléfono móvil facilitado por la empresa.


Población de 16 y más años ocupada por acceso a equipamientos TIC en el lugar de trabajo, según territorio histórico, sexo y nivel de instrucción. C.A. de Euskadi. 2004. Media anual. (%)

### 3.2. Informazioaren gizarterako sarbidea lantokian

Landunen artean %47,0k ordenagailu pertsona dute eskura lantokian, %35,5ek Internetarako sarbidea dute eta %14,9k enpresak emandako sakelako telefonoa.

**16 urteko eta gehiagoko landunak, lantokiko IKT hornikuntzen arabera, lurraldeka, sexua eta ikasketa-maila, kontuan izanik. Euskal AE. 2004. Urteko batez bestekoa. (%)**

9.



Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

Si se analiza el acceso a equipamientos informáticos según el sexo, se aprecian diferencias; así, el 51,6% de las mujeres tiene acceso al ordenador, frente al 43,8% de los hombres.

El 37,9% de las mujeres ocupadas puede acceder a Internet en su centro de trabajo, 4,0 puntos más que los varones, mientras que en el acceso a un teléfono móvil la diferencia resulta inversa: el 19,7% de los varones ocupados puede acceder a uno, 11,7 puntos más que las mujeres en su misma situación.

Entre los ocupados, el 72,1% de los que han cursado estudios superiores tiene acceso a Internet, el 24,5% de los que cuentan con estudios secundarios y el 8,9% de los que tienen estudios primarios.

El 18,9% de los que tienen estudios superiores, el 14,5% de los que tienen estudios medios y el 8,9% de los que tienen estudios primarios, pueden disponer de móvil en el desarrollo de su trabajo.

Hornikuntza informatikoak erabiltzeko aukera sexua kontuan izanda aztertzen bada, aldeak badirela ikusten da: emakumeen %51,6k ordenagailua erabiltzeko aukera dute eta gizonen artean, aldiz, %43,8k.

Emakume landunen %37,9k Internetarako sarbidea dute lantokian, gizonezkoek baino 4,0 puntu gehiago, baina sakelako telefonoa eskura izateari dagokionez, alderantziz gertatzen da: gizonezko landunen %19,7k dute, egoera bereko emakumezkoek baino 11,7 puntu gehiagok.

Goi-mailako ikasketak egin dituzten landunen %72,1ek Internetarako sarbidea dute; bigarren mailako ikasketak dituzten %24,5ek eta lehen mailako ikasketak dituzten %8,9k.

Goi-mailako ikasketak dituztenen %18,9k, bigarren mailako ikasketak dituztenen %14,5ek eta lehen mailako ikasketak dituztenen %8,9k sakelako telefonoa dute eskura lanean.

#### 4. Los usuarios de Internet: Evolución y características

Antes de comenzar el análisis dedicado a los usuarios de Internet, resulta necesario precisar que las preguntas utilizadas para definir a los usuarios de Internet varían en las diferentes encuestas:

- ¿Ha accedido alguna vez a Internet?
- ¿Tiene acceso o usa Vd. Internet?
- ¿Usa Vd. personalmente Internet?
- ¿Ha usado Internet en los últimos tres meses?
- ¿Ha usado Internet en el último mes?
- ¿Ha usado Internet el día anterior?

La población de referencia puede comenzar en los 14 años (Estudio General de Medios), en los 15 años (Eustat, INE), 16 años (Eurostat) o en los 18 años (Observatorio de la Sociedad de la Información en Euskadi), con lo cual los resultados de los datos de usuarios de Internet de cada fuente pueden llegar a ser sensiblemente diferentes. Por esta razón, las comparaciones que se realizan deben tomarse con prudencia.

Hay que destacar que Eustat recoge el uso de Internet a partir de los 6 años y el INE a partir de los 10 años, aunque se publica la edad de 15 y más años en las principales tablas.

En el año 2003, para armonizar la definición de usuario de Internet con Eurostat, se incluyó el límite de acceso a la red en los tres últimos meses, para poder considerar como usuaria a una persona.

De 2000 a 2002 se consideraba usuario de Internet a todo el que se había conectado alguna vez. Este cambio supone que, dado que no se han modificado las series anteriores, la evolución positiva del número de usuarios sería aún mayor en 2004 y 2003 con respecto a años anteriores.

##### 4.1. El acceso a Internet

El incremento de la penetración de Internet continúa entre la población de la C.A. de Euskadi, manteniéndose éste sostenido respecto a años anteriores. En 2004 se han incrementado tanto los que se conectan a Internet como los que tienen la posibilidad real de acceder. Así, el 35,1% de la población mayor de 15 años de la C.A. de Euskadi navega por la red independientemente de desde dónde se conecten y el 51,4% tiene en su entorno posibilidad de conectarse; por lo tanto, se produce una brecha de 16,2 puntos porcentuales de población que, por un motivo u otro, no lo hace nunca.

2. TAULA  
TABLA 2  
INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-FAMILIAK  
ENCUESTA SOBRE LA SOCIEDAD DE LA INFORMACION-FAMILIAS

**15 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLEEN BILAKAERA, INTERNETEKO SARBIDEAREN ETA ERABILERAREN ARABERA. EUSKAL AE. URTEKO BATEZ BESTEKOA. (%) (\*)**  
EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN DE 15 Y MÁS AÑOS, SEGÚN ACCESO Y USO DE INTERNET. C.A. DE EUSKADI MEDIA ANUAL. (%) (\*)

	2000	2001	2002	2003	2004
<b>Interneten sartzeko aukera badu / Tiene posibilidad de acceder</b>	33,6	39,4	43,5	46,5	51,4
<b>Inoiz ez da konektatzen / Nunca se conecta</b>	15,4	12,5	13,1	14,4	16,2
<b>Benetan konektatzen da / Se conecta efectivamente</b>	18,2	26,9	30,4	32,1	35,1
<b>Aprobetxamendu-tasa / Tasa de aprovechamiento</b>	54,3	68,2	69,8	69,0	68,3
<b>Ez dauka aukerarik / No tiene posibilidad</b>	66,4	60,6	56,5	53,5	48,6

(\*) 2003 tik 'inoiz ez da konektatzen' azken hiruhilabeteaz ari da / A partir de 2003 "nunca se conecta" se refiere a los últimos 3 meses.  
Iturria / Fuente: IGIF / ESIF. Eustat.

#### 4. Internet-erabiltzaileak: bilakaera eta ezaugarriak

Internet-erabiltzaileen analisia hasi aurretik, esan beharra dago erabiltzaile horiek definitzeko ez direla galderak berak erabiltzen inkesta guztietan:

- Noizbait sartu zara Interneten?
- Baduzu Internet erabiltzeko aukera edo erabiltzen duzu?
- Zuk zeuk erabiltzen duzu Internet?
- Erabili duzu Internet azken hiru hilabeteetan?
- Erabili duzu Internet azken hilabeteetan?
- Erabili zenuen Internet atzo?

Erreferentziazko biztanleria batzuetan 14 urtetik gorakoa da (Estudio General de Medios), beste batzuetan 15 urtetik gorakoa (Eustat, INE), edo 16 urtetik gorakoa (Eurostat) zein 18 urtetik gorakoa (OSIE). Beraz, aldeak egon daitezke Internet-erabiltzaileari buruzko datuetan, iturri batetik bestera. Horregatik, kontu handiz egin behar dira konparazioak.

Esan behar da Eustat 6 urtetik gora hasten dela Interneten erabilerari buruzko datuak biltzen eta INE 10 urtetik gora, nahiz eta taula nagusietan 15 urte eta gehiagokoen datuak argitaratzen diren.

2003. urtean, Internet-erabiltzailearen definizioa Eurostatek duenarekin bat etor zedin, sarean sartu izanaren muga azken hiru hilabeteetan ezarri zen, pertsona bat erabiltzailetzat hartu ahal izateko.

2000 eta 2002 bitartean noizbait konektatutako oro hartzen zen Internet-erabiltzailetzat. Moldatze hori dela eta, aurreko serieak aldatu ez direnez, erabiltzaile kopuruaren bilakaera positiboa are handiagoa izango litzateke 2004an eta 2003an, aurreko urteekin alderatuz gero.

##### 4.1. Interneteko sarbidea

Interneten sartzeko hazkundeak oraindik ere bere horretan dirau EAEko biztanleen artean aurreko urteen aldean. 2004an gora egin dute Internetera konektatu direnek nahiz Internetera benetan konektatzeko aukera dutenek. Horrela, bada, EAEko 15 urtez gorako biztanleen %35,1 sarean nabigatzen ibiltzen dira, edozein tokitatik konektatuta ere. Bestalde, %51,4k aukera dute bere inguruan konektatzeko; beraz, 16,2 ehuneko-puntuako tartea osatzen dute hainbat arrazoiengatik inoiz konektatzen ez direnek.



